

# EAEko aurrekontuak gaur izango dira eztabaidagai Legebiltzarrean

Gobernuko alderdiek atzera botako dituzte oposizioaren eskakizunak

**J**aurlearitzak aurkeztu dituen «egokitze» aurrekontuak itzuli eta krisiari aurre egiteko gauza diren batzuk mahaigaineratzea eskatuko dio gaur oposizioak Gobernu hirukoitzari. Hala ere, EAJ, PSE-PSOE eta Eeko parlamentariak entzungor egingo diote eta osoarekiko emendakinak arbuatuko dituzte.

F.I. / GASTEIZ

Eusko Alkartasuna, Euskal Ezkerra, Partido Popular eta Unidad Alavesak osoarekiko emendakinak aurkeztu dituzte Jaurlearitzaren aurrekontuak itzultzea eskatuz. Alderdi hautzat garbi dago hirukoitzaren aurrekontuak ez direla «errealistak eta elkartasunezkoak» Jose Luis Larrea Ogasun sailburuak esan zuen bezala, alderantzizkoak baizik.

Eztabaidaren ondoren, eta sorpresarik espero ez daitekeenez, Jaurlearitzak proposatzen dituen diru kopuru globala onartu egingo da, Gobernua sostengatzen duten hiru alderdiek emendakinak atzera botatzeko behar aina boto dituztelako. Gobernuak 538.071 milioi pezetako (26.903 milioi libera) aurrekontua aurrikusi du, eta herri baltzuak (EITB, SPRI, EVE eta horrelako erakundeak) kontuak harturik 578.285 milioiraino helduko da. Iazko urtearekin alderatuz, %12,9 gehituko da aurrekontua.

Gobernuak krisia kontuan izan du aurrekontuak egiterakoan, aurkezpen egunean Larreak ziurtatu zuenez. Horretarako zor publikoa gehitzea proposatu zuen, zorra %44,2 igoz. Aparteko zorpetze hau 11.500

miliokoa izango da beste partidariak ez bazaio gehitzen bederen. PPK defizita 7.000 milioietan gehitzea nahi du «krisiaren eragina murrizteko».

**DIRU SARRERA GEHIAGO** Sarreren kopuru handiena Diputazioen eskutik helduko da. Sarreren %77 Foru Aldundiek emango dute, eta hauek Bizkaia %52,8 ordainduko du, Gipuzkoa %31,94 eta Araba %15,19. Dena den EA eta EUEk uste dute Diputazioek diru gehiago eman behar luketela, hirukoitzaren aurrekontuak BEZaren igoera ez dutelako aintzat hartu.

Rafael Larrea EAko osoarekiko emendakina defendatzaileak, igoera hori dela eta diru sarreretan 16.400 milioi gehiago agertzea eskatuko du eta Pablo Ruiz ordejuela EUEkoak, ildo beretik, gaineratiko dirua azaltzeko eskatuko dio Gordejuelak, ildo beretik, gaineratiko guztiak azaltzea eskatuko dio Gobernuari. Ruiz de

Gordejuelak uste du 22.000 milioi izan daitezkeela Jaurlearitzak «ezkutatu» nahi duen diru kopurua.

Insaluden transferentzia EAEk eskuratu zuenetik, oposizioak diru partaida hoiek agertzeko eskatu ohi du. Haatik Gobernuak beti aurka azaldu da, zenbaterainokoa den jakin arte ez dela sartu behar argudiatuz. Iaz Ramon Jauregi sozialistak salatu zuen garaiko hirukoitza nazionalistak Madrilek eman behar duen diru partida hori ezkutatu nahi zuela. Gaur EA eta EUEk egingo dute kritika bera. EUEk uste du Insaludeko transferentzia 11.675 milioietakoa izango dela.

Bestalde funtzionamendu gastuak murriztea eskatuko du oposizioak osoarekiko emendakinetan. Administrazio funtzionarioen soldatak %5 igoko dira, baina PPK gehiago kobratzea proposatuko du, urtero igoera aurrikusitakoa baino handiago dela argudiatuz.



EA, EUE, PP eta U Ak osotasuneko emendakinak aurkeztu dituzte.

## Azkarate presoaren amak bere semearen egoera salatu du

BILBO

Manu Azkarate euskal preso politikoaren amak Tolosako Instrukzio Epaitegiaren aurrean salaketa ipini zuen, Espetxe Instrukzioetako Zuzendari Nagusiaren aurka eta Granadako espetxeko zuzendariaren aurka, bere semeak gartzela honetan jasaten duen egoera dela eta.

Sagrario Ramosek salatu du bere semeari 60. artikulua ezarriko dioten zain dagoela (kaleratzea ahalbidetzen duena), sendaezinezko gaixotasuna duela eta. Azkarate gartzelako eritegian dago, beste hamaika gaixorekin batera eta batzuek HIESa eta tuberkulosia dute.

Euskal preso, errefuxiatu eta deportatu politikoen senitartekoak biltzen dituen Senideak elkarteak atzo igorritako ohar baten bidez adierazi zuenez, Azkarate defentsa gutxierekin dago, eta beraz, aurreko gaixotasuneko jotzeko errazago.

Era berean, elkarte honek bere egin zuen Ramosen salaketa eta Granadako espetxeko zuzendariari eta Espetxe Instrukzioetako zuzendariari egotzi zien preso honi gertatu ahal zaionaren erantzule izatea.

Senideak elkartasuna adierazi zien Sagrario Ramos eta Manu Azkarateri, «eta baita gure protestarik gogorrena, Espetxe Instrukzioek halako egoera onartezina mantentzen dutelako, presoaren eta familiaren samina eta oinazea areagotzeko gogoak baino ekarri ezin duena».

Espetxeko medikuek ere sendaezinezko gaixotasunak jota dagoela aitortu diote Manu Azkarateri, eta are gehiago, barizeak urdailean eragin diotela eta gaixotasuna larriagotu egin dute baietsi dute. Manuela Carmela Espetxe Zainketa Epaileak 60. artikulua ezartzeko tramitazioari ekin zion, baina Espetxe Instrukzioek preso Granadako gartzelara eroan zuten, Senideak salatu zuenez.

## Bostgarren estradizio eskaera jakin erazi diote Gisasolari

PARIS

Karmen Gisasola ETKo ustetzeko kideari Espainiako agintari judizialek aurkeztutako beste estradizio eskaera bat jakin erazi dio Pariseko Apelazio Auzitegiak. Estradizio eskaera hau Espainiako agintariak Karmen Gisasolaren aurka aurkeztu zuten bostgarrena da.

Bostgarren eskaera hau Entzutegi Nazionaleko Ismael Moreno Chamorro epaileak formailatu du eta bi akusaziotan oinarritzen da: «Hilketa eragin duen atentatua» eta «ibilgailu baten ez legezko erabilera».

Ismael Moreno Chamorro epaileak eginiko eskaeran Karmen Gisasola polizia bati heriotza eragin zizkieten tiroen egiletzat jotzen du. Hain zuen ere, Bilboko



Hildako poliziaren semearen eskolakideek atzo egin zuten protestaldia.

## Galizian lurperatu dute Bilbon hil zuten polizia nazionala

BILBO

Herenegun Bilbon hil zuten Jose Aseán polizia nazionalaren gorpua Santiago de Compostelara eraman zuten atzo arratsaldean bere jaioterri lurpera zezaten. Bere emazte eta semeak eta Daniel Vega, Bizkaiko gobernadore zibila lagundu zuten zerraldioa.

Compostelako aireportuan Domingo Garcia Sabell Espainiako Gobernuak Galizian duen ordezkaria eta Dositeo Rodriguez Xuntako lehendakaria zituen zain. Atentatua gitzetsi eta Gobernu zentralarekin bat etorri ziren ETArekin kontrako borrokan.

Bestalde, Bizkaiko Diputazioak atentatua gaitzesteko deitu diren ekitaldi guztietan parte hartzea animatu zituen atzo herritarrek. Diputazio kontseiluak gobernua atzo goizean bildu zen, eta agiri bat kaleatu zuen Bilboko Bolueta auzoan izandako atentatua gaitzesteko eta hildakoaren senide eta lagunei «dolumina eta elkartasuna» adierazteko.

«Biolentzia kriminal batez gure gizartea odoleztatu eta minez betetzen dutenekiko arbuioia» agertu

zuen Bizkaiko Diputazioak, eta bizkaitarrak animatu zituen «herri desberdinetan deitu diren protesta ekinzetan parte hartu eta gizartearen lidergo prozesuarekin jarraitzea».

Jose Angel Aseán, hildako poliziaren semearen eskolakideek ere gaitzespen agiri bat kaleratu zuten atzo. Santutxuko Berrio-Otxoa eskolako mila ikasle eta irakasle inguruk berriz, Gesto Por la Paz-Garraxi Ixila koordinakundeak deitutako konzentrazio batean hartu zuten parte.

**'EZ NAIZ IXILDUKO' POSTALAK** Elkarteak berriro eskatu zien atzo euskal herritarrei ETArekin «Orain ez naiz ixilduko» postala bidali diezaizkien, Jose Ansean Castro polizia nazionalaren hilketagatik protestatzeko.

Oraingo honetan elkarte honek proposatzen duen mezua zera da: «Itzela da propaganda egiteko asmoaz hiltzen segitzeko dema. Helburu politiko batek ere ez du justifikatzen Jose Ansean hiltzea. Ideiak era baketsuan defendatu, besteok bezala».

## Ansolak eta Taugreseko jokalariek Irene Villa bisitatuko dute larunbatean

GASTEIZ

Alberto Ansola Arabako diputatu nagusiak, Pedro Ramos kultura foru diputatuak eta Taugres-Baskonia saskibaloitako taldeko jokalariek Irene Villa bisitatuko dute Madril. Irene Villa iazko urriko 17ko atentatuan larriki zauriturik suertatu zen.

Datorren larunbatean, Taugres-Baskonia saskibaloitako taldeak Madril jokatu du Collado Villalba taldearen kontra. Partiduaren aurretik Arabako Diputazioaren goi agintariak eta jokalariek Irene Villa bisitatuko dute.

Bestalde Irene Villari Galizako hurrengo bidalitako tarjetak jasoko ditu. Tarjeta hauek Galinfancia-91 lehiaketan bildu ziren eta 23.000 inguru izan daitezke. Luis Jueguen Vilas, Galinfancia-91ko batzorde antolatzaileko lehendakariak eramango dizkio tarjetak.